



**RECUPERAR EL RUMBO
PARA NAVARRA
POLITIKA PLAZARA**

AURKIBIDEA

| | |
|---|----|
| 0.-Sarrera. Nondik gatozen | 4 |
| 1.-Egoeraren diagnosia..... | 9 |
| 1.1.- Barcinaren legealdia..... | 9 |
| 1.2.-Nafarroako finantzen egoera | 11 |
| 1.3.-CAN auzia | 12 |
| 1.4.-Murrizketak Ongizate Estatuaren zutabeetan..... | 13 |
| 1.5.-Baketze-prozesua eta bizikidetza politikoaren normalizazioa | 17 |
| 2.-Helburuen definizioa eta planifikazioa. Nafarroarako norabidea..... | 19 |
| 2.1.-Bakea eta bizikidetza: gure erronka, gure aukera..... | 19 |
| 2.2.-Autogobernua..... | 20 |
| 2.3.- Hitzarmena egunearatzea. Izaera teknikoa sendotzea eta zeharkako zerga | 22 |
| 2.4.-Erreforma fiskala, birzentalizazaren aurkako gakoa | 24 |
| 2.5.-Nazioartekotzea. Europa eta I+G+b, nazioartera ateratzeko bide gisara | 25 |
| 2.6.Gizarte eta ekonomia arloko loturak sendotzea foru lurrealdeekin eta intereseko beste entitate batzuekin | 27 |
| 2.7.-Foru funtzionarioen kidegoa. Balio erantsia berreskuratzea | 28 |
| 2.8.-Azpiegitura Plana. Arrazionalizazioa, etorkizuneko erantzuna..... | 29 |
| 2.9.-Enplegu Plan Integrala: zeharkako akordio handi baterantz..... | 32 |
| 2.10.-Ongizate Estatuaren iraunkortasuna | 34 |
| 3.-Urtebetea norabidea markatzeko..... | 35 |

ÍNDICE

| | |
|---|----|
| 0.-Introducción. De dónde venimos..... | 38 |
| 1.-Diagnóstico de la situación | 43 |
| 1.1.-Legislatura Barcina | 43 |
| 1.2.-Situación financiera de la Comunidad | 45 |
| 1.3.-Caso CAN | 46 |

| | |
|---|----|
| 1.4.-Recortes en los pilares del Estado de Bienestar | 47 |
| 1.5.-Proceso de pacificación y normalización de la convivencia política..... | 51 |
| 2.-Definición y planificación de objetivos. Rumbo para Navarra..... | 52 |
| 2.1.-Paz y convivencia: nuestro reto, nuestra oportunidad | 52 |
| 2.2.-Autogobierno..... | 53 |
| 2.3.-Actualización del Convenio. Reforzar el perfil hacendístico e imposición indirecta | 55 |
| 2.4.-Reforma fiscal, la clave contra la recentralización | 57 |
| 2.5.-Internacionalización. Europa y la I+D+i como plataformas | 58 |
| 2.6.-Reforzamiento de vínculos socio-económicos con los territorios forales y con otras comunidades de interés | 60 |
| 2.7.-Cuerpo de funcionarios forales. Recuperación del valor añadido | 61 |
| 2.8.-Plan de Infraestructuras. La racionalización como respuesta de futuro | 62 |
| 2.9.-Plan Integral de Empleo: hacia un gran acuerdo transversal..... | 65 |
| 2.10.-La sostenibilidad del Estado de Bienestar | 67 |
| 3.-Un año para marcar rumbo..... | 69 |

0.-Sarrera. Nondik gatozen

Joan den maiatzaren 25eko Europako hauteskundeek uste ez bezalako bultzagarri sozial eta politiko bat izan dira Estatu osoan, bai eta Nafarroan ere. Iritzi-zundaketeak abstentzia eta politikarekiko desatxikimendua handituko zirela iragartzen bazuten ere, ez zen horrelakorik gertatu, eta jendeak mezu garbi bat eman zuen bozkatzearekin batera. Egia da parte-hartzea antzekoa izan zela duela bost urtekoarekin, baina emaitzek erakutsi dute hazi egin direla aldaketa instituzionala eta erregenerazio demokratikoa aldarrikatu dituzten indarrak. Borondate hori Nafarroan ere agertu da, PSOEk nafar gehienetan aldaketa nahiarri berriz ere betoa jarri ondoren.

Gizartea aspaldian ari da esaten gogaitua dagoela instituzio-sistema agortu eta zaharkitu horretaz; aspalditik ez du loturarik sentitzen sistema horrekiko, jendearen ustez ez dielako erantzuten gizartearen eskariei, ezta beharrei ere. Gizartea botere publikoek baztertua dago eta zur eta lur ari da ikusten nola jarri diren abian jendearen kontrako politikak edota zuzenean nola eraisten ari diren ahaleginaren ahaleginaz lortutako ongizate Estatua.

Maiatzaren 25ean, bozek ederki zigortu zituzten sozialistak eta popularrak. PP alderdirik bozkatuena izan bazen ere, esan daiteke ozta-ozta irabazi zuela. Popularrek izugarri egin dute behera eta botoen % 26,3 eta 16 jarleku eskuratu zituzten, hau da, 2009an baino 8 gutxiago. PSOE, bere aldetik, are gehiago hondoratu zen eta botoen % 23 baizik ez zuen lortu eta 14 jarleku baizik ez. Sozialistek inoiz izan duten emaitzarik kaskarrena izan da. Bederatzi eurodiputatu galdu zituzten.

Europako azken hauteskundeen emaitzek, beraz, ederki erakutsi dute herritarra erabat gogaituak daudela politika despotikoa egiteko maneraz, plazatik urrun, eta hori berriz ere agerian gelditu da Koroaren ondorengotza dela eta. PPk eta PSOEk presa osoz ekin nahi izan diote ondorengotzari eta uko egin diote sistema politiko eta instituzionalaren inguruko eztabaidea egiteari

eta, sistema hori, nabaria denez, aspaldian dago agortua. Eta are okerrago, herritarrei hitza ukatu diete. Aspalditik heldu da bi alderdion jokamolde hori, eta, hain zuzen ere, jokamolde horrek eraginik ari da gero eta gehiago hondoratzen alderdi-bitasunean oinarrituriko sistema; orain arte txandaketa izan da politikan, baina beti politika berbera gogoan hartuta.

Eredu instituzional horrek inon goia jo badu, Nafarroan izan da, hemen ez baita gauzatu ere egin bozek agindutako gobernu-alternatiba, eta horrek, jakina denez, klientelismoa bultzatu du etengabe, eta horrekin batera, xahukeria ekonomikoa eta bazterketa arlo guzietan, hau da, politikan, gizartean eta hizkuntzetan.

Horra hor, beraz, erregimen zaharkitu baten ardatzak, baina haren sustatzaile eta onuradun nagusiak ederki saiatzen ari dira iraunazten, Estatuko egitura nagusiek lagunduta, Errege Etxeak ere lagunduta. Bestela hor daude Errege berriak Vianako Printzea saria ematearen karira Leiren esandako hitzak, guztiz adierazgarriak.

Ezinbestekoa da Estatuan erregimen politiko eta instituzionala berrikustea, baina Nafarroan guztiz premiazkoa da, premia gorria dago horretarako, eta hemengo gobernuburuaren setak eraginda, gainera, beste urtebetetzez egonen dira erakundeak geldirik eta beste urtebetetzez ere iraunen du liskar politikoak; gobernuburuak, azken finean, beste urtebetetzez zigortu ditu herritarrok. Herritarrek gidaritza argia behar duten honetan, UPNko Gobernuak bere gutxiengoari eusteko erabakia hartu du, itxura hutsa diren neurri barren hutsak hartuta, datu makroekonomikoak harro agertuz, baina berriz ere egiazko Nafarroa bazter utzita, gizartean egiazki zer gertatzen den aintzat hartu gabe, krisia ez baita oraindik bukatu eta beharrezkoa izanen da krisiari aurre egiten jarraitzea, herritarrek ondorioak sufritzen segitzen dutelako.

Nabarmendu behar da UPNk azalez eta mamiz egindako politika kaltegarrien aurrean, jarduera demokratikoak bezain itxaropentsuak ere izan direla. Joan den ekainaren 5ean, esaterako, Iruñea estatuko lehen hiriburua izan zen erreferenduma eskatzen egungo estatu ereduaz, Osoko bilkurak formalki halaxe erabakita. Nafarroa Bai udal taldeak sustaturik eta Udal hori osatzen duten gainerako talde aurrerazaleekin adosturik, ekimenak demokraziaren oinarrizko ardatzetako bat izan zuen helburu: herritarrei galdetzea gizartea nola osatu eta egituratu nahi duten.

Eta, hain zuzen ere, horra hor aurrean daukagun erronketako bat; hots, herritarak helarazten ari zaizkigun mezua aintzat hartzea. Gizartea aspaldian ari da oihuka aldarrikatzen politika bestela egin beharra. Politika zintzoa eta xumea. Betiko botere guneetatik urrun eta herritarrengandik aunitzez ere hurbilago. Begirada pertsonengan pausatuko duen politika, plazan bertan egindakoa. Herritarren iritziak entzun eta arazoak aintzat hartuko dituen politika. Europako hauteskundeak plazaren muinean dabilen isuri horren ondorioetako bat baizik ez dira izan, eta indar politikoek eta erakundeek ez liokete entzungor egin behar. Eta Geroa Baik isuri horri arreta egiteko borondatea dauka, bai eta konpromisoa ere.

Hori guztsia azken asteotan gertatu bada ere, aurretik izan dugun agertoki politikoa ere berez izan da osotara kezkagarria.

Bazterrak inarrosi zituen ekaitzaren ondotik, Nafarroako agertoki politikoa bare esnatu zen 2014ko apirilaren 1ean. Izañ ere, hauteskundeak aurreratzeko parada galdu zen, aukera hori hainbat astez zurrubiloaren erdigunean egon ondoren. Behin martxoaren 31 saihestuta, edo bestela esanda, legeak hauteskundeak aurreratzeko ezarrita zuen muga gaindituta, Yolanda Barcinaren gobernuak arnasa hartu zuen legealdia agortzeko; hau da, 2015eko maiatzera arte iristeko. Dena dela, Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendari ohi Idoia Nievezek dimisioa eman zuenetik bi hilabete eta erdian gertatutakoak zauri-marra sakonak utzi ditu politikan eta ekonomian, bai eta arlo instituzionalean ere.

Azken arlo horri dagokionez, gogoratuko dugu Nieves andrearen dimisioaren ondoren, berariaz Ikerketa Batzordea sortu zela, eta hark berak Batzordean esandakoek erdi-erditik harrotu zitztela politikaren hautsak, komunikabideetan eragindako oihartzun ikaragarria ahaztu gabe. Hauts horien artean lausotuta, ez zitzaison behar bezalako garrantzia eman Gobernuak urtarilaren 22an Hitzarmen Ekonomikoaren Zerbitzua sortu izanari, eta hain zuzen ere, organo hori arduratuko da Nafarroak aurten Estatuarekin hasi beharreko negoziazioak bultzatu eta koordinatzeaz, 2015-2019 urteetako baldintza ekonomikoak ezartze aldera.

Instituzioen arlotik atera gabe, 'Nieves auziak', gainera, egiazko susmo bat utzi digu, hots, Gobernua sudurra sartzen saiatu dela, eta interes politikoak,

alderdikoiak eta pertsonalak ere atzeman daitezkeela Nafarroako Zerga Ogasunaren jokabidean.

Ekonomian, berriz, datu larri-larri batekin laburbilduko dugu egun horietan frogaturiko kalteen handia. Izan ere, Nafarroako Ogasuneko teknikariek 251 milioitan jo dute Gobernuaren erabakiak eragindako kaltea; hots, enpresei BEZa atzeratzeko erabakiak 2013ko diru-bilketan eragindako kaltea.

Dena den, 'Nieves auziak' politika harrotu izanak bestelako ondorio kaltegarriak ere eragin ditu Nafarroako ekonomian. Horrela, Nafarroan eta hemendik kanpo, tentsioa zentsura-moziorantz eta Bilduren nahitaezko sostengura bideratzen zen bitartean, Gobernua azken ukitua ematen ari zitzaion garrantzi bereziko herrilan baten esleipenari; herrilan hori oso garrantzitsua da, bai tamainagatik bai etorkizunean eraginen dituen ondorio finantzarioengatik. Honatx: Nafarroako Ubidearen lehen fasearen ureztalurrak handitzea.

% 25eko beherapenarekin, esleipenduna OHL izan da Agbar-ekin konsorzioan elkartuta, eta Agbar-en akziodunen artean, La Caixak % 24 dauka. Lanen aurrekontua 147,5 milioi euro da, baina une honetan Gobernuak likideziarik ez duela kontuan hartuta, itzalpeko bidesariari helduko diote, eta horrek 592 milioi eurora igo du azpiegituraren hasierako aurrekontua, datozen 30 urte honetan ordaindu beharrekoak...

Esleipenetik bost egunera, martxoaren 31n, Ogasun Ministerioak esan zuen Nafarroak ez zuela bete 2013ko defizit helburua.

Egun horretan berean, Yolanda Barcinak berretsi zuen legealdiaren bukaeraraino eutsiko ziola bere karguari.

UPN tematurik dabil Gobernuari eusteko, eta horrek ez dio inola ere egonkortasunik ekartzen egoera politikoari. Oposizioak ere, bere aldetik, ez du asmatu egonkortasunaren oihalak ehuntzen. Erantzukizuna guztiena da, baina ez maila berean: PSNk abiarazi zuen ekimena, zentsura-mozioa aurkeztuko zuela iragarri baitzuen, betiere hauteskundeak aurreratzea gogoan hartuta; baina hori guzia Parlamentuko ikerketa batzorde baten ondorioen mendean jarri zuen. Batzordeak prozesua luzatu egin zuen, harik eta Estatu osoan polemika itxuratia sortu zen arte Bilduren derrigorrezko sostenguaren inguruan.

Sozialistek, beraz, baldintzak proposatu zituzten, oposizioko gainerako taldeok onartu, eta, azkenean, berriz ere dena ustel atera zen, hau da, lehengo lepotik burua, 2007ko abuztuko hartan bezalaxe, Ferrazek inposaturik eta Sarasaten onarturik. Oposizioa ez da gehiengora iristeko gauza, eta UPN berriz ere baliatuko da sozialisten ahultasunaz gobernuari eusteko; gehiengoaren sostengua ez duen gobernuari eusteko, hain zuzen.

Izan ere, apirilaren 1eko baretasuna akidura politikoaren seinalea da.

Esparru orokorrak Nafarroako garapen sozio-ekonomikoari ezartzen dizkion baldintzek ere ez dute krisiarendako erantzuna errazten.

Izan ere, Konstituzioaren 135. artikuluaren erreformaren bidez, eta ondotik, Aurrekontua Egonkortzeko Legearen bidez, Estatuak defizitaren sabaia inposatzeko ahalmena dauka, eta bi gauza horiek hasieratik beretik markatu dute Nafarroako Foru Ogasunaren erritmoa, bai eta hein handi batean Foru Gobernuaren ekintza politikoa ere.

Esan behar da ekonomia birzentalizatzeko lege-esparru berriak zuzenean eragin dituela ondorio kaltegarriak; hortxe ditugu, esate baterako, murrizketa-politikak, zorra ordaintza gizarte arloko gastuen gainetik, edota BEZaren itzulera atzeratzea kontabilitatea mozorrotzeko, etab.

Begi-bistakoa da, beraz, birzentalizatzearen arriskua, eta, hori austeritatearen sakralizazioari gehitu zaio gurean, edo, esan beharko genuke austeritatea inposatu digitela, defizitaren aurkako ustezko tresna bakarra delakoan.

Egia esan, Aurrekontua Egonkortzeko Legea 2012ko apirilean onetsi zenetik, Nafarroak muga jarri dio defizitari, baina inoiz bete gabe Gobernu zentralak ezarritako helburua. Horrela, Nafarroako defizita % 1,88 izan zen 2011n; % 1,74, 2012an, eta % 1,55, 2013an. Beherantz jo du, baina horrek oinarri bakarra izan du, hots, gastua eta inbertsioa murriztea; aldiz, Europako gure auzokideak -lemazain alemana aurrena- honez gero hasi dira ohartarazten murrizketa austeritatearekin nahasteak dakartzan arriskuez.

1.-Egoeraren diagnostika

1.1.- Barcinaren legealdia

Agertoki orokor honetan, Yolanda Barcinak 2011ko uztailaren 1ean estreinatutako Gobernuak ez du sekulan egonkortasunik izan. Urte bereko udazkenean bertan, izan ere, hiru gauza erabakigarri gertatu ziren. Lehenik, irail hasieran, denboraldi politikoa abiatzeko ekitaldian, Barcinak PPrekiko ituna berreginen zuela iragarri zuen, hauteskundeetara elkarrekin aurkezteko. Hori ikusita, Jiménez presidenteordeak erantzun zuen hautsia zela gobernuko bi baziideen arteko konfiantza. Bigarrenik, handik egun batzuetara –irailaren 28an–, Gobernuak inoizko aurrekontu-murrizketarik handiena iragarri zuen, 190 milioi eurokoa; eta, hirugarrenik, urriaren 9an, CANeko dieten eskandalua atera zen argitara.

Gertakari horiek arras baldintzatu zuten Gobernuko baziideen arteko harreman nahasia (UPN eta PSN) eta, horren ondorioz, Barcinak Jiménez presidenteordea kanporatu zuen gobernutik, 2012ko ekainaren 15ean.

Handik zenbait egunetara, gobernuburua Gobernua aldatu beharraz baliatu zen bere alderdikide eta ekonomiako presidenteorde Álvaro Miranda ordezteko; eta hara, bi aste doi joanak ziren Mirandak 2012ko kontuei doikuntza eskandalagarri bat eginen zitzaiela iragarri zuenetik: 132 milioi euroko doikuntza, hain zuzen ere.

Handik gutxira, urte bereko urrian, Barcinak beste gobernu-krisi bati egin behar izan zion aurre, Gizarte Gaietako kontseilarri Jesú斯 Pejenautek eman baitzuen dimisioa, CANeko zuzendarria zenean dirua zuritu izanaren delitua leporatuta.

Abenduaren bukaeran, UPyDk eta Kontuzek bi salaketa tartekatu zituzten CANen aurka. 2013ko urtarrilean, Mari Paz Benito epaileak bi salaketak auzi bakar batean batu zituen.

Hil horretan bertan, indarra hartu zuen Barcinaren agindupeko Gobernuaren kudeaketa moldearen beste ikur batek: Ospitale Guneko

sukaldeen pribatizazioak eta, harez gerotzik, eskandaluak bata bestearen atzetik gertatu dira.

2013ko otsailean, Esako urtegia handitzeko lanen ondorioz, urtegi ondoko bi urbanizazioak jendez hustu behar izan ziren eta, harez gerotzik urte eta erdia iragan bada ere, biztanleek ez dute inolako erantzunik jaso Administratziotik. Bitartean, Ebroko Konfederazio Hidrografiko teknikariak ez dira gauza, ez eskuineko mendi-hegala finkatzeko, ez luiziak eragozteko, luiziek sortu baitute egungo kinka.

2013ko martxoan, bere tamaina osoan egin zuen eztanda CANeko Batzorde Iraunkorraren dieten aferak: zenbaitek dieta bikoitzak jaso zituzten, bertan egon gabe eta sinadurari gabe. Ondotik, Barcinak dieta-sariak itzuliko zituela iragarri zuen.

Martxoaren 19an, UPNk bere 9. Biltzarra egin zuen, eta Barcina doi-doi atera zen presidente. 72 boto atera zizkion Alberto Catalánen zerrendari, alderdiaren barne hausturaren erakusgarri.

Egues auziak, bestalde, ederki salatzen du UPN “ereduaren” hondamena, guztiz adierazgarria baita: ordura arteko alkate Josetxo Andíak dimisioa eman zuen preferenteen auziarengatik.

Martxoaren 20an, Alfonso Etxeberriak bere gain hartu zuen Eguesibarko alkatetza.

Apirilean, epaileak Sanz, Miranda eta Maya inputatu zituen CAN auziarengatik. Hilabete berean, Osasun Publikoak beherakoa eragiten duen kutsadura ospitaleko janarian aurkitu izana baieztago zuen.

Maiatzean, Barcinak 13tik 8ra murritztu zituen sozietate publikoak. Gainera, AHTren Castejon/Iruñea lanei jarraipena ematearen alde atera zen, nahiz eta Madrilek bere konpromisoak geldotuko zituela baieztago.

Ekainean eta uztailean, Iribarrenek Nafarroako Ospitale Gunearen arduradun izatetik dimittitu ondoren, Osasunbidean dimisio andana gertatu zen.

Uztailaren 24an, Auzitegi Gorenak Yolanda Barcina inputatzea ezetsi zuen: ez dagokio zigor penalik, gaitzespen etikoa merezi duten jokabideak izanik ere.

Irailean, Barcinak Donapearen aldeko aldarria egin zuen denboraldi politiko berriaren hasieran, eta mutua handiko plan estrategikoa zela esan

zuen. Handik aste batzuetara, Nafarroako Unibertsitateak proiektuari uko egin zion, jende gehiena kontra zegoela ikusita.

Azaroan, bazterrak ederki harrotu ziren, Guardia Zibilak Nafarroako D ereduko irakasleen pentsamendu politikoaz egindako txostenaren karira. Polemikak Estatuan oihartzunik izan ez zuenez, UPN gogotik ahalegindu zen afera lurrikara mediatikoaren erdigonera eramatzen.

Urtea bukatzeko, Gobernuaren seta berriz ere agerian gelditu zen, ETB Nafarroan hartzea eragotzi baitzuen, eta abenduaren 31n, larrialdi pediatrikoen kolapsoa gertatu zen.

Horra hor, beraz, jaio zen une beretik zeinen ezegonkorra izan den Barcinaren Gobernua: gobernu ezegonkorra eta ezgauza inondik ere, 2014 honetan ozta-ozta bizirik dirauena PSNren koherentziarik ezak hats emanda.

1.2.-Nafarroako finantzen egoera

Eta nola eragiten dio agertoki horrek Nafarroako ekonomiaren eta finantzen egoerari? Nola eragiten die premia osoz aurre egin beharreko erronkei? Ez da inola ere gehiegikera esatea politikako giro nahasi horrek kaltea baizik ez dezakeela ekarri, eta kaltegarria da benetan.

Diru-sarreren eta gastu arrunten atalean ez da argi handirik; bai, ordea, itzalik. Izan ere, diru-sarrerak ez dira igo biztanleriaren hazkundearekin bat (3.200 milioi euro inguruan daude geldirik), baina gastuen aldean (3.000 euro inguru) iduri du egonkortu dela 2012an eta 2013an, eta soberakina 200 bat eurokoa izan dela. Horra hor argi bat, bai, baina motela. Esan dezagun, gainera, Gobernuaren kontu ofizialek ez dituztela gastu arrunten atalean zenbatzen zorraren finantza-gastuak (eta hortxe zenbatu beharko lirateke), eta gastuok nabarmen igo dira, 2010ean 40 milioi euro izan baitziren, 107 milioi 2013an, eta 130 milioi izan daitezke 2014 honetan.

Eta horri kapitalaren diru-sarreren eta gastuen atala gehitu behar zaio; atal horrek saldo negatiboa du, ederki hazi da azken urteotan eta, horren eraginez, Nafarroako zorra esponentzialki igo da: 868 milioitik (2008) 3.000 milioira baino gehiagora 2013an...

Gauzak horrela, eta etorkizunari begira, oinarri harturik ekonomiaren susperraldia bultzatu beharra eta gizarte zerbitzuak ziurtatu beharra, funtsezkoa izanen da hainbat atal ongi egokitzea, hala nola zerga erreforma, iruzurraren aurkako borroka, gastu arruntaren azterketa, Estatuari egin beharreko ekarpenaren negoziazioa, Estatuarekiko doikuntzak, eta defizitaren nahiz zorraren arloko helburuak.

1.3.-CAN auzia

Ez da lagungarria, guztiz kontrakoa baizik, Nafarroako Aurrezki Kutxa desagertu izana.

Hasteko eta bat, guztiz zalantzan jartzeko modukoa izan zen CANeko arduradunek abian jarritako hedapen-politika, noiz eta Lehiakortasunaren Batzorde Nazionalak 2007an zehapena jarri ondoren. Urte harten, izan ere, Batzordeak 24 milioi euroko isuna ezarri zion Euskal Herriko Kutxen Federazioari, 1990ean sinatutako akordioa kartel bat izan zelakoan. Behin akordioa bukatuta, Nafarroako Kutxa neurrigabe hedatzen hasi zen Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, nafar entitatean ziharduten sindikatu batzuek bere garaian salatu zuten bezalaxe.

Une harten, finantza-krisia bere benetako tamaina erakusten hasi zenean, hedapenak ez zuen inolako zentzurik, eta gauza bakarra egon zitekeen jokabide horren atzean, gaur egun argi eta garbi ikusi den bezala: hots, nafar kutxak gainontzeko hiru lurrealdeak bulegoz josi nahi izan zituen, etorkizunean balizko fusioa “zentzuzkoa” izan ez zedin.

Horrela, 2009ko abenduan, Nafarroako Kutxak iragarri zuen Caja Canarias eta Caja de Burgos-ekin batuko zela. Handik 6 hilabetera, 2010eko ekainaren 9an, Banca Cívica eratu zen eta, urte hartako azaroan, Cajasol ere eratziki zitzzion. Banca Cívica 2011ko uztailaren 21ean atera zen burtsara, eta, operazio hura, ez dezagun ahaztu, Entzutegi Nazionala ikertzen ari da gaur egun.

Hil horietan, Banca Cívicak ez zuen bere posizioa finkatzea lortu eta, 2012ko hasieratik beretik, indarra hartzan hasi zen “entitate handietako batek”

xurgatua izateko aukera; eta hara, martxoaren bukaeran, CaixaBankek Banca Cívica xurgatuko zuela iragarri zuen.

Operazioaren eskritura ofizialak 2012ko abuztuaren 3an egin ziren: hain zuzen ere, Gobernu zentralak nafar gobernuarekin Nafarroako Ubidearen Lehen Fasea handitzea sinatu (uztailaren 31) eta hiru egunera; eta zer herrilan izan zen hora? Hara, 2014ko otsailean besteak beste CaixaBanki esleitu zitzzion lan berbera.

“Kutxa” desagertu denetik urtea bete zenean, zer galdua zuen nafar gizarteak?

Lehenik eta behin, inondik ere, entitatearen beraren ondare-balioaren galera eskandalagarria: 2009an aitorturiko 1.300 milioi euroak CaixaBaneko akzio-sorta bat dira gaur eta 300 milioitan balioztatuak daude.

Erabaki gunearren galera, horrek dakartzan ondorio guztiekin: ondorioak finantzatan, zergetan, ekonomian eta gizartean. Eta, zer esanik ez, kredituetan ere izan dira ondorioak: gaur egun zuzenean pairatzen dute hori Nafarroako ETEek, hau da, Enpresa Txiki eta Ertainek, baina beste batzuek ere bai: esaterako, erabaki gune hori desagertzearekin batera, proiektu publiko estrategikoek ere zigorra jaso dute, eta galera esatea defizita areagotu izana esatea da hainbat kasutan; adibidez, CANASArentzako maileguan, edota itzalpeko bidesaria formula erabiltzea, horrek dituen ondorioekin.

Eta, jakina, CAN bezalako finantza-erakunde bat galtzeak esan nahi du galdu egin dela gizarte-ekintza helburu nagusi zuen erakunde bat, edo, helburu hori izan beharko lukeena.

1.4.-Murrizketak Ongizate Estatuaren zutabeetan

Hori guztia, gainera, noiz eta defizitari muga jartzearen ondorioz austeritatea lau haizeetara zabaldu den honetan; defizitari muga jartzearen kontua, bidenabar esanda, dekretuz erabaki dute, gure erantzukizunen eta ahalen mugetatik kanpo. Horra hor, beraz, austeritatea; murrizketen politika eta ezintasunaren politika estaltzeko mozorro ederra, alajaina.

Horren haritik, premia gogorra dago kontzeptua doitzeo eta, ongi zehaztuta, politikagintzara ekartzeko: austeritatea ez baita soilik beharrezkoa krisi garaian, baizik eta gizarteak ederki ulertzen du ahalegina egin beharra. Inola ere ez da onargarria, ordea, austeritate kontzeptua erabiltzea murrizketen politika gogorra mozorrotzeko. Hau da, ez da austeritatea langabezia eta berdintasunik eza eragiten dituen austeritatea, ezta ahulenen osasun eta hezkuntza arloko beharrak ase gabe uzten dituen austeritatea ere; hori ez da austeritatea, ez horixe.

Inondik ere ez da austeritatea, hortaz, Barcinaren Gobernuak Ongizate Estatuari ezarri dion murrizketa sorta handia.

Zalantzarak gabe, adibiderik adierazgarriena Konstituzio Auzitegiak 2014ko apirilaren 8an emaniko autoa da, agindu baitu ez bertan behera uzteko etorkinek doako osasun laguntza jasotzeko 8/2013 Foru Legea, Nafar Parlamentuak onetsi eta Raxoiren Gobernuak errekurritu zuena.

Autoan, auzitegiak dio ezin dela osasunerako eskubidea hutsaldu balizko aurrezte ekonomiko baten mesedetan. Konstituzionala 16/2012 Errege Dekretuari buruz ari da, zeinak premiazko neurriak arautzen baititu Osasun Sistema Nazionalaren iraunkortasuna bermatzeko, Dekretuak finkatu baitzuen egoera irregularreko etorkinei osasun laguntza kentzea, eta hori aski polemikoa izan da.

Konstituzionalak, azken finean, dio (gure interpretazioa da, baina batez ere gure uste osoa) osasun-sistemaren iraunkortasuna ezin dela egin ahulenen osasunaren kargura.

Eta neurri hori eta beste batzuk (murrizketak, pribatizazioak) izan dira Barcina Gobernuaren politikagintzaren ardatza legealdi osoan.

2011ko irailean aurrekontuari 190 milioi euroko aizkorakada gogorra eman zitzaketik, osasunak, hezkuntzak eta mendekoentzako laguntzak jaso dute zartakorik handiena.

Oro har, murrizketak egiazko mehatxua dira osasun laguntzarako eskubidearen unibertsaltasunarentzat.

Osasunbideak, zehazki, ederki ikusi du urteotan nola hondatzen joan den osasun zerbitzuen prestazioa; besteak beste, eta nabarmenki:

- Lehen laguntzan itxaron-zerrendak handitu dira.
- Landaguneetako larrialdien hondatze nabarmena.

- Larrialdi pediatrikoen kolapsoa.
- Nafarroako Ospitale Guneko sukaldeak pribatizatzea: oraindik ere arazo iturri da, haserrea eta kexak eragiten ditu gaixoen artean, eta agintariek ez dute inola ere frogatu gastua egiazki aurreztu denik.
- Laborategiak ere pribatizatu dira, baina ez dira prozesu guztiak ezarri, ez ditu laborategi guztiak txertatu, eta trazabilitatea ere ez du segurtatzen.
- Osasun garraioak zerbitzu-eredu integraturik gabe jarraitzen du.

Horri guztiorri erantsi behar zaio azpiegitura asko bukatu gabe daudela edota gutxiegi erabiliak: Ikerketa Biomedikorako Zentroa; Ama Birjina Bidekoaren Ospitale zaharra handitzea; Tuterako Sofia Erregina Ospitaleko ebakuntza-gela berriak; Ospitale Guneko larrialdi-eraikin berria.

Osasun arlokoak bezain nabarmenak izan dira murrizketen ondorioak hezkuntzan, bai eta etorkizunari begira haien bezain kaltegarriak ere. Atal horretan, gastu publikoa ederki murriztu da: 2010ean 665'5 milioi eurokoa izan baitzen (Nafar BPGaren % 3,5) eta 2013an, aldiz, 563 milioi eurokoa (% 2,7). Beraz, Espainiako Estatuaren batez bestekoa baino 1,5 puntu gutxiago da, eta hara, Espainiako Estatua 20. da Europar Batasunean.

Murrizketek zuzenean jo dituzte irakasleak, askoz ere gutxiago ari baitira lanean (250 irakasle gutxiago, 2011n bertan); izan ere, Bigarren Hezkuntzan, 17 eskola-ordu ematetik 18ra igo zaie ordu kopurua. 2012an, 20 eskola-ordura igo zen Bigarren Hezkuntzan, eta 23tik 25era Lehen Hezkuntzan; horren ondorioz, 400 irakasle gutxiago. Labur esanda, 2012tik hona, 650 irakasle gutxiago dago eta ikasle gehiago ikasgela bakotzeko; era berean, gaixotasunak eragindako baja gutxiago ordezkatzen dira; eskola-orduak ugaritu dira; soldatak, aldiz, jaitsi dira; bitarteko irakasleen % 34ri lanaldi partzialeko kontratua egin zaie...

Unibertsitatean, gainera, tasak garestitu eta bekak murriztu dira; era berean, irakasleak murriztu dira, bai eta ikerketari eskainitako baliabideak ere.

Hori guzia kontuan hartuta, esan daiteke irakaskuntzaren kalitateak nabarmen eginen duela behera, bai eta ikasleen hezkuntza mailak ere.

Krisiaren ondorioz, Barcinaren Gobernuak egindako murrizketak bereziki gogorrak izan dira hala euskararentzako kontusailentzat nola seme-alabak

euskarazko ereduak eskolatu dituzten gurasoentzat, hala ikasleentzat beraientzat nola euskarazko komunikabideak entzun, ikusi eta irakurtzen dituztenentzat, eta euskaltegientzat ere bai. UPNren kudeaketak eraginda, krisia bi aldiz gogorragoa izan da nafar gizartearen zati batentzat.

Euskara Nafarroako hizkuntza bereki bat da; horrenbestez, nafar guztiak ondarea da. Herritar guztiak eskubide berdina izan beharko luke euskara ikasteko eta erabiltzeko, eta Administrazioaren kudeaketak premsa hori izan beharko luke beti oinarri.

Azkenik, eta gizarte-politikei dagokienez, murrizketak han eta hemen gertatu dira, eta horrek eragin berezia izan du Oinarrizko Errentan. Izen ere, UPN-PSN Gobernuak onetsitako lege berriak (Gizarteratze-errenta arautzen duen 1/2012 Foru Legea) eta, ondotik, bi alderdi horiek berek egindako aldaketek, babesari indarra kendu diote, bai eta estaldura ere. Horrela, araudi berriak prestaziorik gabe utzi ditu hemen bizitzeko baimenik ez duten familia-unitateak; halaber, errenta eskuratzeko baldintzak gogortu ditu (besteak beste, Nafarroan luzaroago bizi behar izatea), eta, gehienez ere, errenta 24/30 hilabetez jasoko da, salbuespen arbitrarioak eta irrealak kontuan hartuta, eta zenbatekoak murriztu ditu.

Gizarte Enplegu Babestuari dagokionez, 2011n 6 milioi euro bideratu ziren; 2013an, 2,2 milioi, eta 2014an, berriz, 2,19 milioi euro.

Mendekotasunaren atalean ere murrizketak izan dira, Alderdi Popularraren gobernuak ezarritako murrizketei jarraikiz. Horrela, prestazioak % 11 eta % 39 artean murriztu dira, mendekotasun mailaren eta errenta mailaren arabera.

Azken zertzelada bat gizarte-politiketan izaniko murrizketen inguruak: garapenerako lankidetzan, % 79 murriztu da lankidetzarako laguntza ofiziala 2010etik 2014ra, Medicus Mundi eta Médicos del Mundo erakundeen kalkuluen arabera.

Egia esan, murrizketa-politikak sekulako ondorioak eragin ditu Ongizat Estatuan, baita Nafarroan ere; zenbakiak izugarriak dira. Dena dela, kontu ofizialetako zenbakiek aldez edo moldez mozorrotzen dituzte zenbait atal. Osasunean eta Hezkuntzan, adibidez, % 0,03 bakarrik jaitsi dira langileria-gastuak 2008tik 2012ra...

Are gehiago, 2012ko langileria-gastuak hartzen baditugu, zenbakiak honako hauek dira: 1.072 milioi eurotik (diru-sarreren heren bat), Osasuneko eta Hezkuntzako atalek 771,7 milioi euro egiten dute, hau da, gastuaren % 72.

Gainerako departamentuen langileria-gastua % 28 da (Ekonomia eta Ogasuna; Lehendakaritza eta Barne Departamentua; Sustapena eta Etxebizitza; Landa Garapena, Industria, Enplegua eta Ingurumena; Gizarte Politika, Berdintasuna, Kirola eta Gazteria; eta Kultura, Turismoa eta Erakunde Harremanak).

Datu horiek ikusita, gure kritika ez dugu bakarrik murrizketa-politikan pausatu behar: ikusi dugun bezala, langileria-atalean aurrekontuko ahalegina nabarmena da, zenbakiak mozorrotzeko saioan.

Ez; murrizketak –ez austerritatea, ordea– berez larriak izanik ere, are larriagoak gertatu dira. Zergatik? Egungo agintariak ez direlako gai izan beharrei erantzuteko, gero eta behar gehiago badira ere, eta era berean, ez direlako gai izan diru-sarrera gehiago bilatzeko: enplegua, kontsumoa, inbertsioa, Estatuarekiko Hitzarmena berrio negoziatzea, zerga sistemaren berrikuspena (errenta eta BEZa, batez ere) eta zerga iruzurraren aurkako borroka.

1.5.-Baketze-prozesua eta bizikidetza politikoaren normalizazioa

Ekonomia arloko erronkak premiazkoak badira, baketze eta normalizazioaren arloko erronkak ere oso garrantzitsuak dira.

Frankismoaren bukaerak bi herentzia onartezin utzi zituen, eta biak ere ardatz beraren inguruau daude: Nafarroa ez dago aitorturik subjektu politiko gisa.

Lehen herentzia indarkeria izan zen. Nagusiki ETAk egindakoa, baina ez bakarra. Indarkeriak oinaze eta enfrentamendu lorratz izugarria utzi du, gainditu beharrekoa, baina beti bake iraunkorraren eraikuntzan oinarriturik eta memoria historikoa berreskuratzeko prozesuan funtsaturik. Indarkerian jardun zutenek beren helburuak edo motibazioak –edozein izanda ere– giza duintasunaren aurretik jarri zituzten, eta kalte bidegabea eragin zuten.

Bigarren herentzia: biztanleriaren heren bat politikoki ezabatu izana, hau da, Nafarroako abertzaleak, euskaltzaleak eta independentistak politikoki ezabatu izana. Eta ezabaketa horrek, jakina, irabazi ederrak ekarri dizkie UPNri eta PSNri, eta hainbat gobernu erraztu dizkie bi alderdi horien alderdi-bitasunari.

2.-Helburuen definizioa eta planifikazioa. Nafarroarako norabidea

Geroa Baik argi eta garbi dauka zer eredu nahi duen Nafarroarako: jende guztiarentzako eredua da, begirada jendearengan pausatuta eta erakundeak egiazki elkartasunean oinarrituta. Osasunak eta Hezkuntzak inbertsiotzat joko dituen eredua; ez, ordea, gastutzat; erantzukizuna eta errespetuan euskarrituta; epe luzera begiratzen duen eredua, konpromisoari lotutakoa; finantza-entitateek, gainera, egiazko ekonomia zinez lagunduko duten eredua, ustelkeriari tokirik utziko ez dion eredua: bakean bizi den gizarte normalizatuan bermatua dagoen eredua. Eta, horretarako, autogobernua finkatu eta garatuko duen Nafarroa, eta Europan gero eta subjektu aktibo handiagoa izanen den Nafarroa.

2.1.-Bakea eta bizikidetza: gure erronka, gure aukera

ETAK 2011ko urrian borroka armatuaren bukaera iragarri ondotik, bizikidetza nabarmen aldatu da oro har Euskal Herrian, baina hainbesteko garrantzia duen gai horretan ere bada alderik lurralte batetik bestera. Euskal politikaren mugetatik kanpo, Espainiako Gobernua geldi-geldirik eta gogor-gogorrik dago, eta horrek prozesua geldotu du.

Horren haritik, Geroa Bairen irudikoz, beharrezko eta arrazoizkoa da honako jarduketa-ildo hauei ekitea:

- Memoria, zer esanik ez, tresna ezinbesteko eta funtsezko da bake-prozesuan; bereziki ETAK eragindako biktimei egin behar zaie aitorta eta, halaber, haien gizartean betetzen duten eginkizuna duindu behar da, bai ahanzturaren aurrean, bai biktimak erabili nahi dituztenen aurrean.
- Lan egin behar da ETAren desarme gauzatzeko eta haren desegiterantz jotzeko.
- Nafarroako Parlamentuan Bake eta Bizikidetza Lantalde bat sor dadin proposatzea.

- Giza eskubideen urraketa guztiengaineko txostenez gain, datu-base ofizial, publiko eta oso bat prestatzea, honako garai hauetan bilduta: gerra zibila, Francoren diktadura, trantsizioa eta egungo erregimen konstituzionala.
- Oraindik ere jarrita dagoen sinbologia frankista kentzea, bai eta indarkeria mota oro goraipatzen duten ikurrak ere.
- Prozesuak bultzatzea, indarkeria guztiengaineko biktima guztiei ordaina emateko eta biktimen gainezko ezagutzarako.
- Giza eskubideak sustatu eta gizartean zabaltzeko politika publikoak zehaztu eta bultzatzea.
- Lan egitea espetxe-politikan salbuespenezko neurriak bukatzeko.

2.2.-Autogobernua

Geroa Bain hasieratik beretik ari gara salatzen agintariak krisi ekonomikoaz baliatzen ari direla Estatua birzentalizatzeko ahaleginean. Zoritzarrez, Alderdi Popularren Gobernuaren neurrieik eta legeek arrazoia eman digute Mariano Raxoiren lehen legealdi honetan; hori gutxi delakoan, etorkizunik hurbilenean, gainera, PSOE PPren jarreretara hurbilduko dela atzematen da.

Espaniako alderdi-bitasunak, beraz, Estatua birzentalizatu nahi du, eta horren aurka borroka egitea izanen da politikagintzaren eginkizun nagusietako bat hala Nafarroan nola Euskal Herri osoan, hala Espaniako estatuaren politikan nola Europako agertokian.

Horrenbestez, funtsezko tresnek –Hitzarmenak, adibidez– Parlamentuko talde guztiengaineko defentsa beharko dute. Ziurrenera, gainera, eraso eginen zaie elementu berezi batzuei -laugarren xedapen iragankorrari, esaterako-, Konstituzioa hemendik gutxira erreformatzeko saiakera egiten bada. Gauzak horrela, bereziki da beharrezkoa autogobernua sendotzea.

Lehenik eta behin, autogobernuak tresna eraginkorra izan behar du egiazko politika egiteko; horrela ulertzten dugu guk autogobernua. Horrela, premiazkoa da esatea autogobernuak ahalmena ematen digula politika

zehatzak garatzeko, hau da, gugan, gugatik eta guretzat pentsatutako politikak garatzeko: gure lanabesik onena da, zertarako eta gizarteak egiazki dituen arazoak moldatuko dituzten politikak sortu, garatu eta abian jartzeko.

Arestian azaldu dugun eraso giro horrek mezua modulatzera behartzen gaitu: 1982an onetsitako Forua Hobetzeko Legeak gabezia nabarmenak ditu eta erreforma sakona behar du, besteak beste nafar herritarren berrespenik eza zuzentzeko eta, era berean, herritarren zati handi baten kanporaketa zuzentzeko. Eta, gauzak nola dauden ikusita, premia osoz aldarrikatu beharra dago Forua Hobetzeko Legea bere osoan bete eta garatu behar dela.

Beraz, Nafarroara iritsi ez diren eskumenak hartzeaz ari gara eta, gure iritziz, honako hauek guztiz garrantzitsuak dira:

- Nafarroak bere osoan hartu beharko luke Gizarte Segurantza, haren erregimen ekonomikoaren kudeaketa barne (Foru Hobetzearen 54. artikulua).
- Eskumen guztiak I+G+b arloan (Foru Hobetzearen 44.7 artikulua).
- Eskumen guztiak lan arloan, enpleguko politika aktiboak eta pasiboak barne, bai eta Lan Ikuskaritza ere (Foru Hobetzearen 58.1.b artikulua).

Baina, era berean, esan dugu gainditu beharra dagoela 82ko arauaren espiritua bera. Horren haritik, guk autogobernua nahi dugu eta haren alde eginen dugu, etorkizunerako proiektu baten oinarria delako. Hasteko eta bat, Nafarroari egiazko ahalmen politikoa eman behar zaio, subjektu politikoa baita; gaur egun, ordea, objektu politiko hutsa da, batzuen iritziz “Estatu afera” baita, eta beste muturrean, aldiz, “euskaldunen Jerusalem” gisara jotzen da...

Horrexegatik dauka inoiz baino zentzu handiagoa Foruen Erabateko Berrezarpena aldarrikatzeak, XXI. mendera eguneratua, eta horrek esan nahiko luke nafar herritarrek berreskuratu dutela subjektu politikoa izateko ahalmena; halaber, inoiz baino zentzu handiagoa dauka nafarren erabakitzeko eskubidea aldarrikatzeak, erabakitzeko eskubidea eskubide demokratiko hutsa baita. Geroa Bai, beraz, nafar herritarren erabakitzeko eskubidearen aldekoa da, nafar jendeak bere etorkizuneko proiektua irudikatzeko eskubidea baitu, bai eta proiektu hori lortzearen eta eraikitzearen alde lan egiteko eskubidea ere.

Eta etorkizuneko proiektuaren eraikuntza horretan, argi dago aurrerapausoak eman behar direla Estatuarekin itun berri bat egiteko,

bilateralitatean oinarritua, gure Eskubide Historikoak egunearatzearen ondorioz, eta aurrerapausoak ere, EAErekin eta Iparraldearekin harreman esparru berri bat sortzeko. UPN behin eta berriz saiatzen da bizitzen gainerako euskal herritarrei bizkarra emanda, eta horrek ondorio nabarmen eta larriak eragin ditu hainbat arlotan, gizarte, ekonomia eta finantza arloetan, batez ere; horra hor, adibidez, zeinen tematua dabilen EAE-Akitania Euroeskualdean ez sartzearekin.

Era berean, eta Europarekiko harremanei dagokienez, Geroa Baik proposatzen du Nafarroak erabakimen partekatua izan dezala, bai eta zuzeneko ordezkaritza ere, bere eskumeneko edota intereseko gaiak aztertzen edo erabakitzetan dituzten Europako erakundeetan. Horren haritik, azpimarratu nahi genuke atzerapen onartezina gertatu dela legealdi honetan, oraindik ere erabaki gabe baitago nafar ordezkariek ECOFIN erakundearen bileretan parte hartzea. UPN eta PP 2012ko abendutik ari dira gaia luzatzen.

2.3.- Hitzarmena egunearatzea. Izaera teknikoa sendotzea eta zeharkako zerga

Estatuarekiko itunaren berritze horretan, Hitzarmena egunearatzea da ardatz nagusietako bat, eta, horren haritik, kezkagarria da Barcinaren Gobernuak tresna berri bat sortu izana –Hitzarmen Ekonomikoaren Zerbitzua–, aurten bertan egin beharreko egunearatzeei ekiteko.

Aipatu zerbitzua 2014ko urtarrilaren 22an jaio zen, hau da, Nieves andreak Ogasuneko zuzendari-kudeatzaile kargua utzi eta bi egunera. Munta handiko kontua da, eta hara, ez zuten batere zabaldu.

Hitzarmen Ekonomikoaren Zerbitzua, izan ere, jaio zen une beretik da Estatuarekin egin beharreko negoziazioen arduradun teknikoa; zehatzago, “aurreikuspenen arabera, aurten Estatuarekin hasiko diren negoziazioak bultzatu eta koordinatzeaz arduratuko da, 2015/19 aldia arautuko duten harreman ekonomikoak finkatze aldera”, Gobernuak Zerbitzua sortu izanaren berri emateko plazaratu zuen ohar laburraren arabera. Horrek esan nahi du sendotu egin dutela Ekonomia arloaren eginkizuna Hitzarmena egunearatzeko negoziazioan, Ogasun arloaren jarreraren kaltetan.

Gure irudikoz, eta, Barcinaren Gobernuak markatutako norabidearen kontra, Zerbitzu hori sortu ondoren, inoiz baino beharrezkoagoa da Hitzarmena negoziatuko duen ordezkaritzaren izaera teknikoa sendotzea. Une honetan, eta, Gobernuak berak emandako datuen arabera, bi dira erronka nagusiak: batetik, Hitzarmenaren kargurako ordainketaren doikuntza –ordainketa, gaur egun, Foru Ogasunaren diru-sarreren % 18 da–, eta, bestetik, BEZagatiko doikuntzen funtzionamendua zehatz-mehatz kontrolatzea; izan ere Volkswagen-eko merkataritza-aldaketaren ondorioz, BEZaren bidez guztira biltzen den dirutzaren % 70 inguru izatera iritsi da; hau da, 700 milioi euro baino gehixeago.

Hitzarmenaren kargurako ordainketari dagokionez –kalkuluen arabera, 2014an 578 milioi euro izanen da-, premiazkoa da gainditzea 2010erako oinarri-urte gisara itundutako formula; formula horrek bost urtez markatu du ordainketa. Beraz, bestelako akordioa behar dugu 2015erako, eta akordio berriak kalkulua nabarmenki distortzionatzen duten bestelako faktoreak berrikusi beharko lituzke (inputazio-indizearen % 1,6tik haratago), hala nola Estatuaren zorraren urteko zerbitzua edota Estatuaren aurrekontu-defizita, zeinaren joera arras aldatu baita 2010etik hona.

Azkenik, eta lege-eskumenen arloan, une honetan gure kontra jokatzen duten puntu batzuk findu beharko lirateke, hala nola enpresa-multzoei dagozkienak edota egoera jakin batzuetako zerga bereziei dagozkienak. Gainera eta, atal honetan bertan, irmo aldeztu beharra dago hitzartuta ez dauden zuzeneko tributu berekiak arautzeko dugun ahalmena, Hitzarmenean ezarritako errespetatuta, eta, era berean, geure eskumenaren beraren alde egin behar dugu, hari egin zaizkion erasoak ikusita; esate baterako, eraso hutsa izan da Auzitegi Konstituzionalak azalera handien nafar zergari buruz emandako epaia.

Eta, Hitzarmenean adostutakoa aldezteaz haratago, Geroa Baik Hitzarmena politikoki gainditu nahi du, hau da, zeharkako zergari dagokion eskumena ere aldarrikatzen dugu, Europako esparruaren baitan erabateko burujabetza izan dezagun zerga arloan.

2.4.-Erreforma fiskala, birzentalizatzearen aurkako gakoa

Foru Lurrardeek –eta haien artean, Nafarroak– zerga-legerian duten eskumena zuzeneko zergari soilik dagokio. Dena dela, azken urteotan, eta 2009an izan ezik, zuzeneko zergek zeharkakoek baino diru-bilketa txikiagoa eragin dute, eta hori, zalantzak gabe, Estatuarekin alderatuta, kaltegarri zaigu egiazko autogobernuaren ahalmenari eusterakoan. Izan ere, Estatuak zeharkako zergak kontrolatzen ditu; zeharkako zergek diru-bilketa handiagoa eragiten dute, eta, horri esker, Estatuak beherantz eramatzen du zuzeneko zerga, eta horrek foru arduradunak estutasunean jartzen ditu (betiko hura gogoratzen baitute: “nafarrek ez dute beste inork baino gehiago ordainduko...”). Hitz batez, independentzia fiskala galtzen dugu.

Eta bada gehiago: oparoaldian, enpresa gehienek dirua irabazten zutenean, sozietaeten gaineko zergak diru-bilketa nabarmen handiagoa eragiten zuen, egungoa hiru aldiz, eta gaur egun, gainera, badago beste arazo bat: hots, enpresek gaur egun zerga-oinarri negatibo asko metatu dituzte, bai eta aplikatzeke dauden kenkariak ere.

Gure proposamen fiskalak hainbat printzipioen arteko emaitza izan behar du. Hona hemen: nahikotasuna, progresibotasuna, errenta mota desberdinak berdintzerantz jotzea, hurbileko ogasunekiko iragazkortasuna, salbuespenezko neurriak krisiaren aurrean, eta gardentasuna eta pedagogia gizartearren aurrean.

Horrela, egin beharreko erreforma fiskalak hiru norabidera begiratzen du: lehenik eta behin, zeharkako zergaren eskumena aldarrikatzea. Bide luzea izanen da, baina hasi beharra dago behingoan urratzen, erabateko burujabetza fiskalera iritsi nahi badugu.

Bigarrenik, eta zuzeneko zergari dagokionez, honatx gure proposamenak:

1. PFEZ: errentak bere osoan aztertzea, murrizketen eta kenkarien egitura aztertzea, eta era berean, zerga tarteak eta tasak aztertzea, eta kasua bada, araudi berria egitea.
2. Ondarea: figurari eustea, tarteak-tasak atertzea eta eskudo fiskala aztertzea.

3. Sozietateak: zerga tasak aztertzea eta zoruak finkatzea; kenkariak sinpletzea eta eskubide metatuen kudeaketa.

Eta, azkenik, iruzurraren aurkako borroka aipatuko dugu. Lehenik eta behin, Nafarroako Parlamentuak aho batez onetsitako Legea nola eta noraino ezarri den baloratu behar da eta, beharrezkoa bada, behar diren egokitzapenak egin, giza bitartekoak sendotu eta lankidetza eta informazioa trukatzeko akordioak bultzatuko dira.

2.5.-Nazioartekotzea. Europa eta I+G+b, nazioartera ateratzeko bide gisara

Nafarroak Europan dauka egiazki garatzeko aukera, baina horretarako, errotik aldatu behar da Batasunarekiko harremanen ikuspegia eta, aldi berean, honako helburu hau lortzea hartu behar da gogoan: Nafarroak subjektu aktiboa izan behar du EBren barnean.

Horren haritik, funtsezko da Nafarroa Europar Batasunaren 2020 Estrategian sartzea. Hona hemen apustu nagusiak:

- Enplegua hazkunde eragile gisara sortzea.
- Berrikuntza, enpresen lehiakortasunerako gako gisara.
- Hezkuntza, gizarteen aurrerapenerako erreferentzia gisara.
- Gizarteratzea, elkartasuna eta zerbitzuen publikoen prestazioak oinarri harturik.
- Klima/Energia, baliabideak iraunkortasunez erabilita eta ingurumena errespetatuta.

Oinarri orokor horren gainean, Geroa Bairen irudikoz, hona hemen bi helburu nagusiak epe luze/erdira:

- 1). *Europako erakundeen erabakietan presentzia erabakigarria izatea:*

- Ministroen Kontseiluan, Nafarroa zuzenean ukitzen duten aferetan;
- Europako Batzordean, ordezkaritza-bulego baten bidez, aholkularitza eta lobby gaitasunarekin;
- Europako Parlamentuan, talde nazionaletako edo antzeko beste nazionalitate batzuetako eurodiputatuen bidez;
- Eskualdeen Batzordean, Foru Lehendakaritzak presentzia aktiboagoa izan dezala aholkularitza foro horretan, egunetik egunera gero eta pisu handiagoa baitu erabakietan.

2). Berrikuntza eta Ikerkuntza sustatzeko europar funtsak hartzea enpresentzat eta Nafarroako administrazioarentzat, Horizon 2020 programa (80.000 milioi € lehiakorrak).

Horretarako, presentzia eragintsua behar da Europako erakundeetan, Bruselan, eta lankidetza-politika publiko/pribatua eta nazioartekotua, kontsortzio irabazleak osatzeko.

Nafarroa 2020 Estrategiarantz bideratzeko prozesu guztian, funtsezko garrantzia dauka Nafarroa Akitania/EAE Euroeskualdean egoteak. Aurrerago Nafarroa bertan ez egotea aztertuko dugu.

I+G+b arloa guztiz tresna baliagarria da, eta gure apustua hauxe da: kultura berritzalea sustatu nahi dugu hala hezkuntzan nola enpresa-ehunean, hori erabat baita funtsezkoa gure industria lehiakorra, modernoa eta espezializatua izateko. Horrenbestez, oinarrizkoa da egiazko clusterrak sortu eta finkatzea, gure enpresa handien eta, batez ere, gure Enpresa Txiki eta Ertainen berrikuntza sustatzeko, funtsezko baita haien berrikuntza laguntzea.

Helburu hori gogoan, beraz, hona hemen zer proposatu dugun I+G+b arloan:

- Parte-hartze publikoa honako emaitza hauek lortzen bideratzea: patenteak, eta enpresek produktu berriak eta prozesu berriak sartzea.
- Oreka egokia eragile publikoen eta pribatuen artean.
- Nazioartekotzea berrikuntza-prozesuetan; Europa, erreferente argia.
- Teknologia-guneen berrantolaketa.
- Aurrekontu-konpromisoa: elementu nagusia da lehiakortasunean. Funtsezko baita Estatuko eta Europako funtsak eskuratzea, eta funtsezko halaber, gu Europako hainbat eskualde-forotan egotea.

2.6. Gizarte eta ekonomia arloko loturak sendotzea foru lurrealdeekin eta intereseko beste entitate batzuekin

